

Olivier Messiaen.

EPA

## Olivier Messiaen konpositore frantziarra hil da

PARISE

Oliver Messiaen musika konpositore frantziar ospetsua atzo hil zen Pariseko eritxe batean, 83 urte zituela. Claude Debussy eta Maurice Ravel ziburutarren ondotik, Estatu frantziarreko musikaririk ezagun eta prestigiosuena zen Messiaen.

Hiru gai nagusi izan ziren Messiaenen lan guztiaren oinarria finkatu zutenak: fede katolikoa (nahiz eta berak ez bere burua fededuntzat jo), giza maitasuna eta txoriak. Bere musika oso ezaguna izan zen, hala Frantzia nola Frantziatik kanpo ere, eta gainera Messiaen herri ezberdinetako musikari askoren aitaponteko izan zen. Besteak beste, Pierre Boulez, Pierre Henry, Tannis Xenakis eta Karl Heinz Stockhausen aipa daitezke bere ikasle eta jarraitzaileen zerrenda osatzen dutenen arteko ezagunen artean.

**OSO GAZTE HASITAKO MUSIKARIA** 1908ko abenduaren 10ean jaio zen Avignonen, Grenobletik bertara bizitzera joandako sendi batean. Hamaika urte besterik ez zituen Pariseko kontsebatarioan sartu zenean, eta Paul Dukas eta Marcel Dupré-ren ikasle izan zen han. 22 urte besterik ez zituela, Pariseko Trinité Elizako oragonojole izendatu zuten, eta bere azken egunera arte iraun du kargu horretan.

Organorako konposizio erlijioso ezagun asko dira Messiaenek sortutakoak: 'Jaunaren jaio-tza' (1935), 'Organoko liburua' (1952), 'Jesus Umeari hogeitabegirada' (1952)...

Ganbara musika ere gusto handiz landu zuen atzo zendu zen konpositoreak. Berak sortuak dira 'Quatour pour la fin des temps', 'Trangalila sinfonia' eta 'Hiri zelestearen koloreak' besteak beste. Txorien maitale sutsu eta obsesiboa izan zen, gainera, Messiaen, eta txori kantuetan oinarriturik osatu zituen painorako hainbat melodia. Horien arteko ezagunena 'Txorientzako kata-lagoa' da dudarik gabe.

«Bere belaunaldiko musikaririk handiena izan zen», esan du Pierre Boulez konpositoreak Messiaenen heriotzaren berri jakin ondoren.

# Marrazki bizidunetako azetatoak gero eta garestiago dira enkante aretoetan

EEBBetan sortutako joera Erresuma Batua indar handiz ari da pasatzen azkenaldian


**M**arrazki bizidunetako azetatoak garesti saltzen ari dira EEBB eta Erresuma Batuan egiten ari diren enkanteetan. Steven Spielberg eta Michael Jackson bezalako erosle eta biltzaile ospetsu eta ezagunek animazio handia eman diote duela gutxi zabaldu berri den merkatu berezi honi.

LONDRES

Mickey Mouse, Bugs Bunny eta marrazki bizidunetako hainbat pertsonaiaren marrazki bizidunak egiteko erabili izandako zeluloidezko azetatoen enkanteek gero eta arrakasta handiago dute EEBB zein Erresuma Batuan. Zenbait kasutan, ehundaka milioi dolar ordaintzera ere iritsi izan dira zenbait erosle. Esate baterako, 'Edurnezuri eta zazpi epotxak' filmearentzako erabilitako azetato baten truke 210.000 dolar ordaindu zituen erosle batek iazko abenduan.

Marrazki bizidunetako azetatoen bildumatzaileren artean, ospe handiko jendea aurki daiteke, hala nola, Steven Spielberg zine zuzendaria edota Michael Jackson kantari ezaguna. Bildumatzaiile hauek oso kopuru handiak ordaintzera iritsi izan dira, eta merkatuari animazio eta publizitate handia eman diote.

Zeluloidezko azetatoak erosi eta azetatoen bildumak osatzeko irrika eta ohitura EEBBetan sortu bazen ere, Erresuma Batuan ere gero eta joera handiagoa dago horretarako. Herenegun gauean bertan, Londreseko Christie's enkante aretoan 200 azetato jarri ziren enkantean. Disneyren hainbat filmetarako eskuz egindakoak ziren azetato hauek, eta oso diru kopuru handiak ordaindu ziren lan hauen truke, nahiz eta oraindik kopuru horiek ez di-



Mickey arratoiaren marrazkiek pinturen maila lortu dute enkantean.

ren EEBBetan iritsi izan diren-tara hurbiltzen.

### LEHEN EZ BEZALAKO ESTIMAZIOA


Azetatoak, plastiko garden baten gainean egindako marrazkiak dira, marrazki biziduneko filmeetarako oinarri gisa erabiltzen direnak. Walt Disneyren garaia baino lehenagoko lanetan, segundu bakoitzeko 18 azetato egin ohi ziren, baina Disneyren filmeetatik aurrera, se-

gundu bakoitzeko 24 azetato behar izaten ziren gutxi gorabehera marrazki bizidunetako filme batean. Beraz, ordubeteko filme batek 86.000 azetato inguru behar izaten zituen Disneyz geroztik, eta neurri hori da gaur eguneko lanetan erabili ohi dena.

Beraz, azetato ugari egin behar izan zen Disneyren filmeak osatzeko, baina urte askotan azetato horiek zaborrera bota edota lan berriak egiteko erabili izan ziren,

era horretan espazio librea utzi eta trabarik egin ez zezaten. Ondorioz, azetato gutxi geratu izan dira eta horregatik daude hain baloratuak gaur egun.

Marrazki bizidunak egiten dituzten estudioek, gero eta gorago jotzen duen balorazio honetaz jabeturik, erabiltzen dituzten azetatoak zaintzen hasi dira, eta egiten diren salmenta guztietan salneurriaren % 10 bereganatzeko eskatzen, egile eskubide gisa.



Ninja dortoka zein harrikeriaren marrazkiak ere salgai dira, eskaera handiegirik lortu ez duten arren.

